

## POS-E11

*PD en Comunicación Social***IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEAK HIZKUNTZA ANIZTASUNAREN BERME, IRISGARITASUNARI ESKER**

Marijo Deogracias Horrillo eta Josu Amezaga Albizu

NOR Ikerketa Taldea, Ikus-Entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea saila

Ikus-entzunezko komunikabideek lagun diezagukete hizkuntza aniztasun marko berria sortzen. Hori, gure ikerketa proiektuaren hipotesia. Ikus-entzunezko irisgarritasunak eskaintzen dizkigun aukeretan oinarrituz abiatu gara, uste baitugu hizkuntza gutxituentzako aukera direla bai hizkuntza nagusien merkatuetara heltzeko, bai ekoizpen-hizkuntza (jatorrizko hizkuntza gutxitua) ez dadin izan aitzakia edukiari ikusgaitasuna ez emateko. Izan ere, irisgarritasunari esker, ezgaitasun sentsozialen bat duten pertsonak ikus-entzunezko edukietara sarbidea daukate. Eta, hain justu, horrek ematen digu proposamena egiten abiapuntua. Tradizionalki irisgarritasuna oztopo arkitektonikoak gainditzeko modutzat ulertu bada ere, giza eskubidetzat jo zuen NBEk (2006), ezintasunen sentsozialak dituzten pertsonak era irisgarrian sarbidea izan dezaten telebista-saioetara eta zinemara. Oinarrizko eskubide hori bere egin zuen Mugarik Gabeko Telebistaren Europako Zuzentarauak (2007), azpidatzitako telebista-saioen sustatzea aginduz; hala, estatuek hainbat lege eta arau garatu dituzte eskubide hori bermatzeko (Espainian, 7/2010 Ikus-entzunezkoen Legea). Telebista irisgarriaren garapena digitalizazio-prozesuari hertsiki loturik dago; batetik, telebista modu-irisgarriak ikusteko aukerako metodoak eskainiz eta, bestetik, bigarren audio-kanal bat jasotzeko aukera emanez. Bigarren horrek emanaldi eleanitzak ahalbidetzen ditu —gaur gaurkoz ingelesa da gehien erabiltzen den bigarren hizkuntza (Amezaga: 2014)—. Beraz, oraindik urruti geundeke hizkuntza gutxituetan sortutako ekoizpenak gehiengo linguistiko hegemonikoetan sustatzetik. Hala ere, irisgarritasunak eta berau bermatzeko teknologiek horretarako aukera ematen digutela sinetsita, gure ikerketaren lehenengo fasean, hainbat esperimendu gauzatu ditugu: Loreak eta Bypass filmak elebitan eskaini ditugu, eta audientziak aukeratu du jatorrizko bertsioaren (hizkuntza gutxitua) ala bikoizketa-bertsioaren artean. Carlos III. Unibertsitateak garatutako Whatscine teknologiaz baliatu gara horretarako: ezintasun sentsozialak dituztenentzako filmak era irisgarrian jasotzeko teknologia. Azpidatziak, audio-deskripzioa eta zeinu-hizkuntza eskaintzeko sortu zuten aplikazioa; guk bigarren audio-kanala eskaini ahal izateko baliatu dugu audio-deskripzioaren kanala. Filmen ikustaldien ondoren, inkesta bidezko galdeketak egin dira, besteak beste, ezagutzeko ea zein izan den hizkuntza bat ala bestea aukeratzeko motibazioa, aplikazioak arazo teknikorik izan duen nahiz zein izan den audientziaren asebetetze maila, erabilgarritasunari begira. Komunikazioaren helburua, beraz, hurrengo litzateke: ikerketa-lerroaren nondik norakoak azaltzea eta esperimentuan emaitzak aurkeztea.